

MARTXOAREN 17AN GREBA OROKORRA

Gutxieneko soldata hemen eta orain

Ez dira garai errazak langile eta herri sektoreontzat. Egune-
ro darabilgun hiztegiaren *krisi* hitza ageri zaigu. Krisi ekono-
miko, politikoa, soziala, ekologikoa, zaintza lanena. Mun-
dua hankaz gora jarrita du sistema kapitalista patriarkal,
ekozida eta arrazistak; joera autoritario eta faxistak heda-
tuz, gerra inperialistak eraginez, pobrezian eta prekarietate-
tean sakonduz. Aberatsak aberatsago, boterea geroz eta
esku gutxiagotzen eta langile sektore geroz eta gehiago
bazterrean. Emakumeok*, gure sorterria utzi dugun per-
tsona migratuok, arrazializatuok, aniztasun funtzionala
dugunok, gazteok edo sexu-genero disidenteok kapitala-
ren ofentsibaren jo puntuan gaude.

Euskal Herria ez dago errealitate horretatik salbu. Patrona-
la eta agintari politikoak eskutik helduta doaz, aberastasu-
na modu justuan banatzeko edozein neurri blokeatzeko
asmoz. Horixe da gutxieneko soldatarekin ere gertatzen
ari dena. Bertan bizi garenon oinarritzko beharrak asetzeko
diru sarrera nahikoa izatea ekidin nahi dute, eta dagoe-
neko pairatzen ditugun arrakala sozialetan sakondu. Al-
darrikapen zilegi, justu eta egingarri bati bide guztiak itxi
dizkiete.

Pobrezia eta prekaritatea hedatzen jarraitzen dute, eta ho-
rren ondorioek eragina dute gure gorputzetan, osasunean,
harreman sozial eta laboraletan eta baita gure eskubidee-
tan ere. Bizi proiektu desiragarriak eta duinak ezinezkoak
bilakatzen ari dira geroz eta langile sektore gehiagoren-
tzat.

Baina hemen gaude gu: egunero herri eta auzoetan anto-
latzen garen hamaika eragile sozial eta herri mugimendu.
Etxebizitzaren negozioaren aurka mobilizatu eta etxega-
betzeek ekiditeko gure gorputza jartzen dugunak; ikuse-
zin bilakatu nahi duten lana aitortu, balioa eman, aldarri-
katu eta gure historiako lehen Greba Feminista Orokorra
antolatatu genuenak; pentsioak duindu eta, pobrezia atala-
searekin baino, LGSarekin parekatzeko borrokan ari gare-
nak; aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideek
sustatzeko lanean gabiltzanak; gure lurraldea Harrera He-
rria izan dadin egunero afariak eskaini, migrazio prozesuak
babestu eta pertsona guztien eskubidea guztiak defendat-
zen ditugunak; hemen batu gara planetaren muga biofi-
sikoak gaindituta daudela jakitun, lurraren defentsan eta
trantsizio ekosozial justuaren aldeko militanteak; gure hiz-
kuntza biziberritu dadin eta gure herriaren erabakitze

eskubidearen alde lanean ari garenak; xamurtasun inter-
nazionalista hezurmamitzen dugunak; bestelako mundu
bat posible eta beharrezkoa dela aldarrikatzen dugunak.

Forma eta modu desberdinak ditugu. Ez gaude ados hain-
bat gauzetan, baina guztiok bat egiten dugu oinarritzko
ideia batekin: Euskal Herrian gutxieneko soldata propioa
izatea bertan lan egiten dugun eta bizi garen pertsona
guztientzako onura dakarren aldarrikapena da. Kontse-
kuenteak izan nahi dugu, eta ez dugu normalizatu nahi
Euskal Herrian zaintza sistemak egun duen egitura klasis-
ta, arrazista eta patriarkala. Lan harreman justuak sustatu
nahi ditugu, baita etxeko lanaren eta zaintza lanaren es-
parrian ere, zeinetan, askotan, gaur egun dagozkien sol-
datak ere ez dizkieten ordaintzen eta dagozkienak baino
askoz ordu gehiago sartzen dituzten.

Horregatik, gaur hemen bildu garenak eta adierazpen ho-
nekin bat egiten dugunok gure konpromisoa adierazi nahi
dugu. Herri eta auzoetako Greba Batzordeetan parte har-
tuko dugu. Greba honen aldeko pedagogia eta politizazio
lana egingo dugu, langileei, eta oro har herritarrei, deial-
diaren arrazoiak azalduz eta deialdiarekin bat egin deza-
ten.

Badira Etxe Zurira joan eta milaka herritarren heriotza era-
giten duten agintarien morrontzan negozioak egin nahi
dituztenak. Badira, haien bulegoetan hartutako erabakiek
mina eta sufrimendua eragiten dutela jakinda ere, lotsa-
gorritzen ez direnak. Ondokoa zapaldu, errentetatik bizi,
ezberdina dena kriminalizatu eta zapalkuntzak betikotze-
ko botere politiko, ekonomiko eta sinbolikoa erabiltzen du-
ten pertsonak. Badira horietakoak. Baina ez dira gehien-
goa, eta gu ez gara horietarikoak. Gu aurrez aurre izango
gaituzten langile eta herri antolatua gara.

Argi eta garbi diogu: borroka hau irabaztera goaz. Martxo-
aren 17an dena gelditzeko deialdia egiten dugu. Lan guztiak
desnormalizatzea deitzen dugu. Greba egitea ezinezkoa
dutenak presente, greba babestera deitzen dugu. Sinetsita
gaude borroka merezi duela eta lortu dezakegula.

Martxoaren 17an, gutxieneko soldata hemen erabaki. Gure
bizi-baldintzei, gure soldatei eta gure etorkizunari buruz
erabakitze burujabetza aldarrikatzen dugu. LGS 1500.
Hobetu ditzagun soldata aberastasuna banatzeko!

LEHEN ATXIKIMENDUAK

Aiaraldeko Greba Batzordea · SOS Aiaraldea · Amara Berri Ehuntzen · Amurrioko Gazte Asanblada · Amurrioko Emakumeon* Sarea – Red de Mujeres* de Amurrio · Arteako Herriko Benta · Asociación de Empleados y Empleadas de Hogar de Navarra. ATHCA/AEZLE · ATH-ELE · Auzoan Bizi Etxebizitza Sindika-
tua · AZET Etxebizitza Sindikatua · Bakea eta Duintasuna – OMAL · Basauriko Asanblada Feminista · BATUTA Judimendi · Bilbo Palestina Herri Ekimena ·
Colectivo Bachué Elkartea · Congreso de los Pueblos · Denon Bizitzak Erdigunean · Donostiako Harrera Sarea · Eginaren Eginez · Euskal Gune Ekosozialista ·
Euskal Herriko Bilgune Feminista · Euskal Herrian Euskaraz · Euskal Herriko Gazte Feministak · Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarea · Euskal Herriko
Pentsiodunen Mugimendua · Ernai · Erotik (Gasteizko ikasle feministak) · Gerrarik EZ Euskal Herria · Gure Esku · Haritu Etxebizitza Sindikatua · Hitz&Hitz
fundazioa · IKAMA · Irungo · Harrera Sarea · Jardun Koordinadora · Jauzi Ekosoziala · Kiskali. Basauriko gazte talde feminista · Koordinadora antimilitarista
Kakitzat · Malen Etxea – Mujeres Migrantes · Mugak Zabalduz · Nafarroako Osasun Publikoaren Aldeko Plataforma · ONEKA – EH Emakume Pentsionisten
Plataforma · Ongi Etorri Errefuxiatuak Araba · OPA Herri Plataformak · Sagarrak talde ekologista · Saretxe Etxebizitza Sindikatua · Sasoia · Sorginenea · THYC-
NA – Trabajadoras de Hogar y Cuidados de Navarra · Trabajadoras No Domesticadas · Usurbilgo Xauxar txosna batzordea

Manifestuari atxikimendua eman nahi izanez gero, jo lotura honetara:



<https://labur.eus/M17Atxikimendua>



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAB'

steillas

ETXALDE
nekazaritza irauunkorra

HIRU

17 DE MARZO: HUELGA GENERAL

Salario mínimo aquí y ahora

No son tiempos fáciles para la clase trabajadora y los sectores populares. En nuestro lenguaje cotidiano aparece constantemente la palabra 'crisis': económica, política, social, ecológica, de cuidados. El sistema capitalista patriarcal, ecocida y racista ha puesto el mundo del revés, propagando tendencias autoritarias y fascistas, provocando guerras imperialistas y profundizando en la pobreza y la precariedad. Las élites son cada vez más ricas, el poder se concentra en cada vez menos manos y una parte creciente de la clase trabajadora se ve desplazada a los márgenes. Las mujeres*, las personas migradas, racializadas, las personas con diversidad funcional, la juventud o las personas sexo-género disidentes estamos en el punto de mira de la ofensiva del capital.

Euskal Herria no es ajena a estas realidades. La patronal y quienes ostentan el poder político actúan de la mano para bloquear cualquier medida que busque distribuir la riqueza de forma justa. Eso es precisamente lo que ocurre con el salario mínimo: pretenden evitar que quienes aquí vivimos contemos con ingresos suficientes para cubrir las necesidades básicas, ahondando en las brechas sociales que ya padecemos. Han cerrado todas las puertas a una reivindicación legítima, justa y factible.

La pobreza y la precariedad siguen extendiéndose y sus consecuencias impactan directamente en nuestros cuerpos, nuestra salud, en las relaciones sociales y laborales y en nuestros derechos. Construir proyectos de vida deseables y dignos se está convirtiendo en un imposible para cada vez más sectores de la clase trabajadora.

Pero aquí estamos: la multitud de agentes sociales y movimientos populares que nos organizamos a diario en pueblos y barrios. Quienes nos movilizamos contra el negocio de la vivienda y ponemos el cuerpo para evitar desahucios. Quienes organizamos la primera Huelga Feminista General de nuestra historia para reconocer, poner en valor y reivindicar los trabajos que se pretenden invisibilizar. Quienes llevamos años en la lucha por unas pensiones dignas y su equiparación con el SMI, y no con el umbral de la pobreza. Quienes luchamos día a día para promover los derechos de las personas con diversidad funcional. Quienes, para que nuestro territorio sea tierra de acogida, ofrecemos cenas cada día, apoyamos los procesos migratorios y defendemos todos los derechos para todas las personas. Aquí nos hemos unido quienes militamos en defensa de

la tierra y por una transición ecosocial justa —conscientes de que los límites biofísicos del planeta se han superado—, quienes trabajamos por la revitalización de nuestra lengua y por el derecho a decidir de nuestro pueblo y quienes damos cuerpo a la ternura internacionalista. Personas que reivindicamos que otro mundo es posible y necesario.

Nuestras formas y modos son diversos. No coincidimos en todo, pero compartimos una idea fundamental: contar con un salario mínimo propio en Euskal Herria es una reivindicación que beneficia a todas las personas que trabajamos y vivimos aquí. Queremos ser consecuentes, no normalizar el sistema clasista, racista y patriarcal que domina la lógica del sistema de cuidados en Euskal Herria y promover relaciones de trabajo justas, también en el ámbito del trabajo de hogar y de cuidados.

Por ello, quienes hoy nos reunimos aquí y nos sumamos a este manifiesto queremos expresar nuestro compromiso. Participaremos en los Comités de Huelga de los pueblos y barrios. Realizaremos una labor de pedagogía y politización a favor de esta huelga, explicando los motivos de la convocatoria a la clase trabajadora y a la ciudadanía en general para que se sumen a ella.

Hay quienes acuden a la Casa Blanca y buscan hacer negocios bajo la servidumbre de gobernantes que causan la muerte de miles de personas. Hay quienes ni se sonrojan aún sabiendo que las decisiones tomadas en sus despachos provocan dolor y sufrimiento. Personas que oprimen, que viven de las rentas, que criminalizan lo diferente y utilizan el poder político, económico y simbólico para perpetuar las opresiones. Existen, sí, pero no son la mayoría y nosotros y nosotras no somos parte de ese grupo. Somos la clase trabajadora y un pueblo organizado que les hará frente.

Lo decimos alto y claro: vamos a ganar esta lucha. El 17 de marzo hacemos un llamamiento a pararlo todo. Llamamos a desnormalizar todos los trabajos. Llamamos a apoyar la jornada, teniendo presente a quienes les es imposible hacer huelga. Tenemos la convicción de que la lucha merece la pena y de que podemos lograrlo.

El 17 de marzo, el salario mínimo se decide aquí. SMI 1500. Reivindicamos la soberanía para decidir sobre nuestras condiciones de vida, nuestros salarios y nuestro futuro ¡Mejoremos los salarios para repartir la riqueza!

PRIMERAS ADHESIONES

Aiaraldeko Greba Batzordea · SOS Aiaraldea · Amara Berri Ehuntzen · Amurrioko Gazte Asanblada · Amurrioko Emakumeon* Sarea – Red de Mujeres* de Amurrio · Arteako Herriko Benta · Asociación de Empleados y Empleadas de Hogar de Navarra. ATHCA/AEZLE · ATH-ELE · Auzoan Bizi Etxebizitza Sindikatua · AZET Etxebizitza Sindikatua · Bakea eta Duintasuna – OMAL · Basauriko Asanblada Feminista · BATUTA Judimendi · Bilbo Palestina Herri Ekimena · Colectivo Bachué Elkarte · Congreso de los Pueblos · Denon Bizitzak Erdigunean · Donostiako Harrera Sarea · Eginaren Eginer · Euskal Gune Ekosozialista · Euskal Herriko Bilgune Feminista · Euskal Herrian Euskaraz · Euskal Herriko Gazte Feministak · Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarea · Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua · Ernai · Errotik (Gasteizko ikasle feministak) · Gerrarik EZ Euskal Herria · Gure Esku · Haritu Etxebizitza Sindikatua · Hitz&Hitz fundazioa · IKAMA · Irungo · Harrera Sarea · Jardun Koordinadora · Jauzi Ekosoziala · Kiskali. Basauriko gazte talde feminista · Koordinadora antimilitarista Kakitzat · Malen Etxea – Mujeres Migrantes · Mugak Zabalduz · Nafarroako Osasun Publikoaren Aldeko Plataforma · ONEKA – EH Emakume Pentsionisten Plataforma · Ongi Etorri Errefuxiatuak Araba · OPA Herri Plataformak · Sagarrak talde ekologista · Saretxe Etxebizitza Sindikatua · Sasoia · Sorginenea · THYCN – Trabajadoras de Hogar y Cuidados de Navarra · Trabajadoras No Domesticadas · Usurbilgo Xauxar txosna batzordea

Para adherirse al manifiesto, aquí tenéis el enlace:



<https://labur.eus/M17Atxikimenduak>

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAB

steillas

ETXALDE
nekazaritza iraukorrak

HIRU